

Zientzia eta fikzioa

Javier Rojo

"Gizon Ikusezina"

H.G. Wells

euskaratzailea: Miren Arratibel

Ibaizabal, 1997

Esan daiteke H.G. Wells (1866-1946) zientzia fikziozko literaturaren aintzindarietako bat dela. Oraintsu agertu da bere eleberri ezagun baten euskal itzulpena, Gizon ikusezina. Honelako beste zenbait eleberrirekin gertatu den bezalaxe, istorio hau oso ezagun bihurtu da eta ez bakarrik liburuagatik; izan ere, zineak, hasieratik bertatik, zientzia fikzioarekiko halako lilura berezia sentitu duelarik, askotan pantailaratu izan dira Wells-en eleberriak. Eleberri honen atzean kezka bat dago, zientziaren aurrerapenengatik etor daitezkeen arriskuek sortzen dutena, eta munduak XX. mendean korritu duen bidea ikusita, nahiko justifikatua. Eleberriaren argumentua gogoraraziko dut laburki. Zientzia esperimentu baten ondoren gizon bat ikustezin bihurtzen da. Zientzilari horren ustearen kontra, honek ekar litzakeen abantailak gutxi dira, ordea. Bestalde, esperimentua aurrera joan ahala, zientzilari horrek endekatze morala jasango du gaiztakeriaren irudia izan arte. Istorioa kontatzean idazleak ardura berezia izan du dena sinesgarritasunaren esparruan gerta dadin. Gainera testuan beste osagai batzuk ere aurki ditzakegu, adibidez, beldurrezko literaturaren elementuren bat edota umore beltzaren zipriztinak.

El Correo, 1997-10-15